



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 22a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak hezkuntzaren alorrean darabilen politikari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (3. or.).
- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak mendekotasunaren arloko politikak finantzatzearen alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gure erkidegoko landa eremuen garapen sozioekonomikorako aukera moduan har dezan biomasa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean jasotako akordioak gara ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zorrotz kontrola ditzan herri lanetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da adierazpen askatasuna errespetatu dadin, arlo guztietan errespetatu ere, EITB Nafarroan ikusi ahal izateko hitzarmena taxutu eta zehaztean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eremu euskalduneko errepideetako turismo-afixak neurri berekoak izan daitezen gaztelaniaz eta euskaraz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak eman ditzaten. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berma dezan doakoa izanen dela ikasleek banaka erabiltzeko prestatutako curriculum-materiala. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzko neurri jakin batzuk har ditzan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bigarren hezkuntza eskaintzen ez den Nafarroako eskualdeetan D ereduan eskolatutako ikasleen arazoak konpon ditzan. Nafarroa Bai parlamentutaldeak aurkeztu du (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, Amnesty International erakundeak Irango exekuzioak direla-eta eginiko salaketa babesteko. Eledun Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zer egiten ari den Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilaria Nafarroan langabe gehien duen eskualdean, Baztan-Bidasoan alegia, gertatzen dena ikusita, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea nola bete duen Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeak 4/1988 Foru Legeko 19.3 artikuluan ezarritakoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroaren kokapenari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroa 2012 Planean jasotzen den ikerketa zentroari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontratazio berriei eta gizarte prestazioen eskabideak igo izanaren ondorioz udalei laguntzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (18. or.).
- Galdera, etxerik gabeko edo pasadizoko pertsonari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (18. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa prestatu eta aurkezteko atzerapenari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak hezkuntzaren alorrean darabilen politikari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak hezkuntzaren alorrean darabilen politikari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregela-menduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako irakaskuntza publikoko zenbait sindikatuk –CCOO, STEE-EILAS, AFAPNA, CSI-CSIF eta UGT– Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna sinatu zuten.

Itun horren indarraldia 2007tik 2011ra bitartekoa da. Gaur egun, sindikatuak ordezkatzeko dituz-

ten sinatzaileen aldetik beharrezko informazioa jaso ondoren, adierazi digute itunaren zenbait alderdi ez direla bete, eta, gure ustez, ez-betetze horiek Parlamentuak aztertuak izateko moduko larritasuna dute.

Bestalde, badakigu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren menpe dagoen Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroan munta handiko aldaketak egin behar dituztela. Aldaketa horien ondorioz, langileen uko egiteak izan dira zenbait taldetan, eta, gure ustez, gai horrek badu garrantzi nahikoa Gobernuak zer iritzi duen jakiteko.

Talde politiko honentzat garrantzitsua da zalan-tzan jartzea, eztabaidaren bidez, Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bidez, izandako jokaera batzuk; adibidez, unean uneko aldaketak egitea izandako esperientzien baloraziorik egin gabe, hizkuntza ereduaren hautaketarekin zerikusia duten gaietan egin den moduan.

Eta, azkenik, nabarmendu behar dira aurrekontu-ekitaldi honetan bete gabe geratu diren beharrezkoak, lanerako prestakuntza etengabeari buruzko zenbait kontusail kentzearen ondorioz.

Azaldutako guztiagatik, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, ezagutze aldera hezkuntzaren arloko politika eta azken aldian Hezkuntza Departamentuan hartu diren zenbait erabakiren arrazoiak.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak mendekotasunaren arloko politikak finantzatzearen alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak mendekotasunaren arloko politikak finantzatzearen alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak lehendakariorde eta Lehendakari, Justizia eta Barneko kontseilari Caballero jaunari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Foru parlamentari honek jabeldura aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak mendekotasunaren arloko politikak finantzatzearen alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa. Parlamentuak errekurtsioa aurkeztu zuen Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen zenbait xedapenen aurka, baina geroago errekurtsio hori bertan behera utzi eta erretiratzeko erabakia hartu zuzen, zenbait baldintza zehatzetan oinarrituta:

- Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren egokitzapenean bermatu beharko litzateke mendekotasunaren arloko gastuen finantzaketa, Estatuak beste autonomia erkidego batzuetan finantzatu behar zituen prestazioen neurri berean.

- Nafarroak bere gain hartuko litzuzke Estatuak beste autonomia erkidegoetan finantzatu behar ez zituen prestazioak.

Hala ere, aurreikuspen horiek ez dira betetzen ari edo ez datoz bat Gobernuak kide batek eginiko adierazpenekin, esan baitu Estatuak % 8 besterik ez dela finantzatzen ari.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an.

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gure erkidegoko landa eremuen garapen sozioekonomikorako aukera moduan har dezan biomasa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita gure erkidegoko landa eremuen garapen sozioekonomikorako aukera moduan har dezan biomasa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Energia berdeak lortzeko aukeretatik ekimen bideragarri, errentagarri eta komenigarrienen artean dago biomasa, hau da, egurra eta zuhaitziak erabiltzea elektrizitatea ekoizteko.

Era berean, eta merkatuaren beherakada ikusirik, biomasarako oihan aprobetxamendua bideragarritasun ekonomikoa duen aukera da gure erkidegoko landa eremuetako toki entitateentzat eta partikularrentzat.

Gainera, deprimituen dauden Nafarroako landa eremuetan biomasa plantak jartzea pizgarria izan liteke eremu horietako garapen ekonomikoa eta sozialerako.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du biomasa har dezan gure erkidegoko landa eremuen garapen sozioekonomikorako aukera moduan, bereziki eredu hori abian jartzeko beharrezkoa den lehengaia, egurra alegia, daukaten udalerrietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du laguntza eta babesa eman diezaien biomasa aprobetxatzeko eta ekoizteko plantak eraikitzeko proiektuak garatzen dituzten toki entitateei eta aukera hori garapen sozioekonomikorako abagune bilakatu nahi dutenei. Laguntza hori gauzatuko da Gobernuaren dirulaguntzen bidez edota arlo horretan eskumena duen enpresa publikoren baten parte-hartzearen bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du ez dezan bultzatu ezta parte hartu ere, ez zuzenean ez enpresa publikoen bidez, nagusiki onura ekonomikoa lortzea helburu duten biomasa plantak eraikitzeko proiektuetan, ez eta foru erkidegoko landa eremuetako alor horretako beste proiektu batzuekin lehian ari diren edo arriskuan jartzen dituztenetan ere.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean jasotako akordioak gara ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean jasotako akordioak gara ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean jasotako akordioak gara ditzan, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

2007ko martxoaren 28an, aurreko Hezkuntza-kontseilari Luis Campoy jaunak eta hezkuntzaren arloko zenbait sindikaturen ordekariek – CCOO, STEE-EILAS, CSIF, AFAPNA eta UGT– Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko Ituna (2007-2011) sinatu zuten. Itunaren oinarritzko helburua zen ira-

kasleei aitortzea hezkuntza-lanaren funtsezko osagaia direla. 2008ko ekainaren 3an, gaur egungo Hezkuntza kontseilariak hitzarmen bat sinatu zuen, 2007ko martxoaren 28ko Itunean ezarritako zenbait neurri garatu eta aplikatze aldera.

Itunaren alderdi batzuk hitzartutakoaren arabera garatu badira ere, Ituna sinatu zuten sindikatuen ordezkariek askotan salatu dute adostutako zenbait puntu ez direla bete. Hezkuntza-komunitate osoaren egonkortasuna eta adostasuna garrantzitsuak dira hezkuntza publikorako. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta onets dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete dezan 2007ko uztailaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuen kalitatea hobetzeko Itunean eta Itun horretan ezarritako zenbait neurri garatu eta aplikatzeko 2008ko ekainaren 3an sinatutako akordioan hitzartutakoa, sindikatuekiko elkarrizketa trabagabeen bidez, Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatearen hobekuntzan eragina duten neurriak bermatze aldera.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zorrotz kontrola ditzan herri lanetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zorrotz kontrola ditzan herri lanetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Ekonomia aktibatu eta enplegua suntsitzea ekidite aldera egiten den bolumen handiko obra publikoaren ohiz kanpoko lizitazioak eskatzen du lizitazio horretan zenbait baldintza zehaztea, eraginkorragoa izan dadin, lortu nahi dituen helburuei dagokienez, bai eta bidezkoagoa ere, betekizunei, bermeei eta obrak egiterakoan izan den segurtasunari buruz.

Azpikontratazioa izugarri zabaldua dago eta, tamalez, masiboki baliatzen da sektore horretan, eta horrek desbiderapena dakar, enpresa esleipen-hartzailearen mozkin-marjinaren kontzeptuagatik, eta enpresa horiek zenbateko hori obraren exekuzioari gehitzen edo kentzen diote.

Era berean, azpikontratazioak lanpostuen ezegonkortasuna eta prekarietatea dakar. Ezaguna da baita ere azpikontratazioak eragin zuzena duela lan istripuetan.

Krisi egoera larria dela eta, egoera honetan obra publikoen lizitazioak izaera berezia hartzen du, krisiari aurre egiteko eta baliabide publikoei ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeko jarduerak eta enplegu-sorrerari dagokienez. Hori dela eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zorrotz kontrola ditzan obra publikoetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak, halako moduz

non ziurtatzen den legea betetzen dela azpikontrazio bat baino gehiago egiteko debekuari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan, obra publikoak esleitzeko baldintza-

orrietan baldintza edo merezimendu gisa ezartze aldera enpresa onuradunek azpikontrataziorik ez baliatzea lehiaketaren xede diren obrak egiteko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adierazpen askatasuna errespetatua dadin, arlo guztietan errespetatu ere, EITB Nafarroan ikusi ahal izateko hitzarmena taxutu eta zehaztean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita adierazpen askatasuna errespetatua dadin, arlo guztietan errespetatu ere, EITB Nafarroan ikusi ahal izateko hitzarmena taxutu eta zehaztean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Urte asko dira EITB Nafarroan emititzen hasi zenetik eta erabat onartuta dago. Seinale analogikoa laster itzaliko denez, beharrezkoa da baliabide teknikoak egokitzea emititzen jarrai dezan. Horretaz gain, EITB hartzea normalizatzeko, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek eta Nafarroako Foru Komunitatekoek hitzarmen bat sinatzea, herritarrek kalitatezko baldintzetan ikus dezaten EITB.

Hala ere, hitzarmen hori sinatu beharko lukeen gaur egungo Nafarroako Gobernuko zenbait arduradunen adierazpenak entzun ditugu, defendatuz hitzarmena sinatzeko baldintza gisa ezarri behar dela EITBren edukien, irudien eta ikurren aldaketa. Hori erabat bidegabea iruditzen zaigu; izan ere, adierazpen askatasunaren aurkakoa da eta Nafarroako Gobernuaren jarrera beste garai batzuetako zentsuratik oso hurbilekoa da.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adierazpen askatasuna errespetatua dadin, arlo guztietan errespetatu ere, bai eta irudiei, ikurrei eta kartografiari dagokienez ere, EITB Nafarroan ikusi ahal izateko hitzarmena taxutu eta zehaztean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eremu euskalduneko errepideetako turismo-afixak neurri berekoak izan daitezen gaztelaniaz eta euskaraz.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita eremu euskalduneko errepideetako turismo-afixak neurri berekoak izan daitezen gaztelaniaz eta euskaraz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2009ko apirilaren 1ean, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri ondoko galdera aurkeztu zuen, idatziz erantzuteko: Eremu euskaldunetan dauden turismoari buruzko afixak –Reyno de Navarra Tierra de Diversidad-Nafarroako Erresuma Nafarroa Lur Anitza–, beste autonomia erkidegoetatik Nafarroako Foru Komunitatera datozen errepideetan paratutakoek, hala nola A-15ean, A-1ean eta abar, ez dute errespetatzen euskarazko testuaren tamainari buruzko araudia.

Kontuan hartuta eremu euskaldunetan euskara hizkuntza ofiziala dela eta, horrenbestez, gaztelaniari ematen zaion trataera bera eman behar zaio, parlamentari honek jakin nahi du:

Eremu euskalduneko errepideetan paraturik dauden turismoari buruzko afixetan –Reyno de

Navarra Tierra de Diversidad-Nafarroako Erresuma Nafarroa Lur Anitza–, zergatik ez da euskarazko testuaren tamaina errespetatzen?”

Hona hemen galderari emandako erantzuna:

“Aipatu afixak egin dira Nafarroako Gobernuak 2006ko azaroaren 25ean euskararen erabileraren alorreko zenbait neurri eta bideko seinaleei buruz hartutako Erabakian ezarritakoari jarraikiz”

Esan behar da Juan Ramón Corpas kontseilari jaunak emandako erantzuna ez dela zuzena. Nafarroako Gobernuak 2006ko azaroaren 25ean euskararen erabileraren alorreko zenbait neurri eta bideko seinaleei buruz hartutako Erabakian ez da aipatu ere egiten eremu euskalduneko errotulu elebidunen tamainari trataera desberdina eman behar zaionik. Are gehiago, Euskarabideak parlamentu-talde honi igorritako erantzun idatzi batek honela dio:

“Hauek dira Euskarabideak darabiltzan irizpideak errotulazioari dagokionez:

- Eremu euskaldunetan, errotulazio elebiduna, euskaraz eta gaztelaniaz, biek ezaugarri berdinak dituztela.

- Eremu mistoan, errotulazio elebiduna, eta abar.”

Ez araudiak ez Euskarabidearen irizpideak ez direnez betetzen eremu euskalduneko errotulu elebidunei dagokienez:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du eremu euskalduneko errepideetako turismo-afixak –Reyno de Navarra Tierra de Diversidad-Nafarroako Erresuma Nafarroa Lur Anitza– neurri berekoak izan daitezen gaztelaniaz eta euskaraz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du afixa horietan agertzen den marra horizontala “Ongi Etorri” hitzen azpian ager dadin, euskarari trataera egokia emate aldera eta indarrean dauden arauak eta Euskarabidearen irizpideak betetze aldera.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakako Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak eman ditzaten.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakako Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen baitira Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak eman ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2008ko irailaren 4ko bilkura berezian, Agoizko Udalak ondoko erabakia hartu zuen aho batez:

“9. Itoizko urtegiaren Larrialdi Planari buruzko informazioa eta konpromisoa jasotzea. Agoizko Udalak, Itoizko Urtegiaren Larrialdi Planak ukitzen duen aldetik, ondokoa eskatzeko konpromisoa hartzen du, Babes Zibilar buruzko araudiari jarraikiz:

1. Itoizko urtegia betetzearen jarraipenari buruzko hileroko txosten guztiak, betetzen hasi zenetik hasita.

2. Etorkizunean egiten diren txosten guztiak, bai eta ustiapen fasekoak ere, hileroko eta amaituta-

ko hilabete bakoitzetik hasi eta 10 eguneko epean, gehienez ere.

3. Itoizen deklaraturiko larrialdi egoera guztiei buruzko dokumentazio osoa, “0 egoera” deiturikoren gainekoa barne.

4. Etorkizunean egiten diren egoera-deklarazio guztiak.

5. Administrazio publiko eskudunek egin ditzatela beharrezkoak diren arauzko aldaketak larrialdi-protokoloetan, hala eskatzen duten udalak sartzeko aldera Itoizko Urtegiaren Larrialdi Planaren arabera 1. larrialdi-egoera gertatuz gero abisua jasoko duten erakundeekin zerrندان.

6. Ukitutako toki entitateen eskura jar ditzan Nafarroako Larrialdien Agentziak beharrezkoak diren teknikariak udal jarduera planak idatzi eta ezartzeko.”

2008ko irailaren 15ean, Agoizko Udaleko alkate Francisco Enguita Moros jaunak eskatu zien Nafarroako Larrialdietako Agentziari, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakako Ministerioari eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak eman zituzten.

Gaur egun, 2009ko maiatzak 12, eta ikasturte politikoa amaitzear dagoenean, Agoizko Udalak ez du erantzunik jaso dokumentazioa eta txostenak eskatu zitzaizkien erakundeetatik.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak premiatzen ditu Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakako Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak lehenbailehen eman ditzaten.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an.

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan doakoa izanen dela ikasleek banaka erabiltzeko prestatutako curriculum-materiala.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan doakoa izanen dela ikasleek banaka erabiltzeko prestatutako curriculum-materiala.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

“Oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa da,” eta, hortaz, ikasteko beharrezkoak

diren materialek (testu liburuek eta material osagarriak) ez diete inolako kostu ekonomikorik ekarri behar ikasleari eta, horrenbestez, haien familiei.

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea onetsi zenetik egiaztatu ahal izan da 30 eurotik 90 euro bitarte gastatu behar izan direla kasurik gehienetan material hori erosteko, legean ez baita jasotzen material didaktiko osagarriaren doakotasuna.

Nafarroa Bai parlamentu-taldearen ustez, ezin bestekoa da, material osagarri horiek erosteko egin beharreko gastua ikusita, doakoa izatea derrigorrezko hezkuntza zikloetan beharrezkoa den material hori guztia.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan doakoa izanen dela curriculum-materiala, prestatua dena ikasleek erabiltzeko, banaka eta ikasturteak irauten duen bitartean, eta, kasuan kasuko orientabide metodologikoen eta ebaluazio irizpideen arabera, curriculum-erabiltzeak garatzen laguntzeko baliagarria dena.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 13an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzko neurri jakin batzuk har ditzan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzko neurri jakin batzuk har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Egiaztatuta dago haurtzaroan izaten diren ikusmen arazoek, ez badira behar bezala eta lehenbailehen hautematen, eragin handia izaten dutela eskola porrotean.

Nafarroako haurrek izan ditzaketen ikusmen arazoak hautemate goiztiarra, esaterako, anblipiarena, ez da beti zuzen egiten osasun zentroetan

aldian behin egiten zaizkien azterketetan. Arazo hori hautemateko jarraitu beharreko protokoloak ez du ziurtatzen, profesionalak diotenez, behar bezain laster hautematea, ahalik eta azkarren eta hobekien zuzentze aldera.

Arazo hori ez bada oso goiz hautematen, jarduera-akatsak direla medio edo protokolo eta hautemate-metodo oker bat erabili delako, bi aukera geratzen dira: Gizarte Segurantzaren adabaki bat jartzea begian eta epe luzeko azterketak egitea, edota zentro pribaturen batera joatea, horietan erabiltzen dituzten metodo zientifikoek ziurtatzen baitute ikusmenaren portzentaje handia berreskuratzea.

Ikusmena berreskuratzea ziurtatzeko, tratamendua oso garestia da, saio kopuruarengatik eta, Iruñetik kanpo biziz gero, egin behar diren joan-etorriengatik. Eta Nafarroako familia askok ezin dute hori ordaindu.

Horregatik guztiagatik, honako hau proposatu dugu:

- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzea alda dezan Nafarroako haurrek izan ditzaketen ikusmen arazoak hautemateko erabiltzen den protokoloa eta metodoa.

- Osasun Departamentua premiatzea epe laburrean ezar ditzan Osasunbidean haurren ikusmen arazoak konpontzeko metodo berriak.

- Nafarroako Gobernua premiatzea gizarte zerbitzuen zorroan sar ditzan haurrentzako tratamendu berriak ikusmen arazoak konpontzeko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bigarren hezkuntza eskaintzen ez den Nafarroako eskualdeetan D ereduan eskolatutako ikasleen arazoak konpon ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bigarren hezkuntza eskaintzen ez den Nafarroako eskualdeetan D ereduan eskolatutako ikasleen arazoak konpon ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Nafarroako zenbait eskualdetako ikasleak –Zangoza, Tafalla...–, eskualde horietan D ereduan Bigarren Hezkuntzako eskaintzarik ez zegoen, Iturrama Institutuan eskolatzen ziren, autobus geltokitik gertu. Hala, garraio publikoa erabiliz, ikastetxera garaiz eta modu erosoan iristen ziren.

Baina egoera aldatu egin da, aurten Iruñerrira-ko ezarritako eskolatzere-eremu bakarra dela eta. Horrekin lotuta, ikastetxeek ikasleak hartzeko baremo bat ezarri dute, eta 4 puntura arte ematen dizkiete Iruñerrian bizi diren ikasleei. Neurri horren ondorioz, Iturrama Institutua lehen aukera gisa hautatu zuten 18 ikasleek ikastetxe horretako ikaspostu eskaintzatik kanpo geratu dira. Horren ondorioz, Eskolatzere Batzorde Orokorrak erabaki du datorren ikasturtean Iturraman sartu ez diren ikasleak Biurdanan eskolatzera, autobus geltokitik kilometro bat baino gehiagora. Hori dela eta, ikasleek ezin izanzen dituzte bateratu garraioaren joan-etorrien ordutegiak eta eskola ordutegiak.

Hori guztia dela-eta, hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpon ditzan D ereduan eskolatutako eta bizi diren tokietan –Zangoza, Tafalla...– Bigarren Hezkuntzako eskaintzarik ez egoteagatik Iruñera atxikita dauden ikasleek pairatu behar dituzten arazo gehituak, eta ikasle horiek atxiki ditzan haien helmugako lekutik –kasu honetan, autobus geltokitik– gertu dagoen D ereduko Bigarren Hezkuntza ikastetxe batera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arazoa konpondu bitartean beharrezkoak diren neurriak har ditzan ikasle horiek esleitutako ikastetxera –Biurdana Institutua– joateko behar duten garraioa errazte aldera.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, Amnesty International erakundeak Irango exekuzioak direla-eta eginiko salaketa babesteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Amnesty International erakundeak eginiko salaketarekin, eta gaitzespenik gogorrena adierazten du Iranen burututako exekuzioak direla-eta, are gogorragoa adin txikioek ustez eginiko delituen kasuan. Halaber, eskatzen du heriotza zigor guztiak zigor arinagoekin ordezkara daitezela, bereziki adin txikioei ezarritakoak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta sostengua adierazten dizkio Amnesty International erakundeari, alor horretan eginiko lanarengatik.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez adierazpen hau igor dezan Irango erakunde eskudunetara eta zuzemenak egin ditzan, bitarikoak eta Europar Batasunaren barrukoak, Irango agintariei presioa egiteko, exekuzioak direla-eta.”

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer egiten ari den Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilaria Nafarroan langabe gehien duen eskualdean, Baztan-Bidasoan alegia, gertatzen dena ikusita.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer egiten ari den Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilaria Nafarroan langabe gehien duen eskualdean, Baztan-Bidasoan alegia, gertatzen dena ikusita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudi-

an xedatutakoaren arabera, Baztan-Bidasoa Eskualdean dagoen langabezia tasa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Baztan-Bidasoa eskualdean 20.000 lagun bizi dira, 8.000 pertsona aktibo daudenak, horietatik 1.000 langabe, eta EREekin kaltetutakoak bertze 2.000, alegia % 37,5 langabe edo ERE batek kaltetuta. Nafarroan langabe gehien duen eskualdea da une honetan.

Galdera

Zer egiten ari da Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria eskualde horretan gertatzen dena ikusita?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, dagokion Batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Egiaztatuta dagoenez, haurtzaroan izaten diren ikusmen arazoek, ez badira behar bezala eta lehenbailehen hautematen, eragin handia izaten dute eskola porrotean.

Nafarroako haurrek izan ditzaketen ikusmen arazoen hautemate goiztiarra, esaterako, anblipiarena, ez da beti zuzen egiten osasun zentroetan aldian behin egiten zaizkien azterketetan. Arazo hori hautemateko jarraitu beharreko protokoloak ez du ziurtatzen, profesionalak diotenez, behar

bezain laster hautematea, ahalik eta azkarren eta hobekien zuzentze aldera.

Arazo hori ez bada oso goiz hautematen, jarduera-akatsak direla medio edo protokolo eta hautemate-metodo oker bat erabili delako, bi aukera geratzen dira: Gizarte Segurantzari adabaki bat jartzea begian eta epe luzeko azterketak egitea, edota zentro pribatuen batera joatea, horietan erabiltzen dituzten metodo zientifikoek ziurtatzen baitute ikusmenaren portzentaje handia berreskuratzea.

Ikusmena berreskuratzea ziurtatzeko, tratamendua oso garestia da, saio kopuruarengatik eta, Iruñetik kanpo biziz gero, egin behar diren joan-etorriengatik. Eta Nafarroako familia askok ezin dute hori ordaindu.

Konponbide erraza duen arazo honen aurrean, hau jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako haurrek izan ditzaketen ikusmen arazoak hautemateko erabiltzen den protokoloa eta metodoa aldatzeko?

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik haurren ikusmen arazoak konpontzeko metodo berriak epe laburrean ezartzeko Osasunbidean?

- Tratamendu hori ez bada ezartzen Osasunbidean, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik laguntza ekonomikorik emateko behar duten familiei?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko ea nola bete duen Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeak 4/1988 Foru Legeko 19.3 artikuluan ezarritakoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea nola bete duen Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeak 4/1988 Foru Legeko 19.3 artikuluan ezarritakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeari buruzko galdera.

Nola bete du Batzordeak ekainaren 11ko 4/1988 Foru Legearen 19.3 artikuluan ezarritakoa?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroaren kokapenari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroaren kokapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako Donejakue Bidearen Plan Orokorrek dioenez, Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroa Iruñean eraikiko da. Interpretazio-zentro bat izanen litzateke, Donejakue Bideari buruzko erakusketak eta jardunaldiak hartuko litzukeena, eta funts dokumentalak ere gordeko litzuke.

Hala ere, hainbat talde dira argi ikusten ez dutenak Iruñea izatea zentro horren kokalekua: Donejakue Bideko Lagunen Elkartea, TEDER turismo-partzuergoa, Laseme-Lizarrako Merindadeko Enpresen Elkartea, Centro de Estudios Tierra Estella/Lizarrerriko Ikerketa-gunea, Gurutze Santuaren Kofradia, Iratxeko Monasterioaren Lagunen Elkartea eta Lizarrako Udala; azken horrek, maiatzaren 7an, aho batez onetsi zuen mozio bat eskatzen zuena Lizarran jar zedila Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroa. Merinda-

deko gizarte-eragile guztiok uste dute zentro horrek Lizarran egon behar duela.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Iruñean eraikiko al da Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroa?

- Nafarroako Gobernuak hartuko al du kontuan zer adierazi duten Lizarrako Merindadeko gizarte-mugimenduek?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroa 2012 Planean jasotzen den ikerketa zentroari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroa 2012 Planean jasotzen den ikerketa zentroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroa 2012 Planean aurreikusita dago ikerketa zentro bat eraikitzea eta abian jartzea. Hona hemen testua:

“Ikerketa zentroaren eraikuntza ikerketa biomedikoari buruzko planaren aplikaziorako beharrezkoak diren jarduketan barruan dago. Zentro horrek ikerketa bultzatuko du oinarrizko laguntzan, bai eta bihotz-hodietako gaixotasunetan, onkologikotan, digestio-gaixotasunetan eta nerbio-sistemakotan ere. Zentro berri horretan zerbitzu teknologikoak eskainiko dira, bai eta ikerketarako lagungarriak direnak ere, hala nola laguntza metodologikoa, kudeaketa klinikoa hobetzeko informatikaren arloko teknologiaren aplikazioak, farmazia arloko ikerketa, inbasio txikieneko kirurgia, genomika eta molekulen biologia, proteomikoa, metabolomikoa eta lipidomikoa, biobankuak (ehun neurologikoak eta tumore-ehunak) eta terapia zelularra.”

Ondoko alderdiei buruzko informazio zehatza nahi dugu: zein da Departamentuak daukan Ikerketa biomedikoari buruzko Plana?

Gaur egun 10 bat pertsona ari badira ikerketak egiten, Departamentuaren ustez, zenbat pertsona izanen dira beharrezkoak ikerketa zentroan, espezialitate desberdinetako medikuak, erizainak eta bestelakoak kontuan hartuta?

Zenbat pertsona arituko dira ikerketarako laguntza ematen, laguntza metodologikoa, kudeaketa klinikoaren hobekuntza eta farmazia arloko ikerketa bezalako arloetan?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontratazio berriei eta gizarte prestazioen eskabideak igo izanaren ondorioz udalei laguntzeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontratazio berriei eta gizarte prestazioen eskabideak igo izanaren ondorioz udalei laguntzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Kontratazio berriei buruzko galderak

1. Prestazio sozialen eskaera kopurua handitu izanaren ondorioz, zenbat pertsonekin indartu da Departamentuko alor bakoitza?

2. Zein da zure departamentuak udalei emanen dien laguntza, ikusirik langile gehiago behar direla oinarrizko gizarte zerbitzuen eskaera areagotzearen ondorioei aurre egiteko?

3. Departamentuak ba al du oinarrizko gizarte zerbitzuetako itxaron zerrenden berri? Non dituzte eskaera arazoak? Zenbaterainokoak dira?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, etxerik gabeko edo pasadizoko pertsoneri buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, etxerik gabeko edo pasadizoko pertsoneri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Etxerik gabeko edo pasadizoko pertsoneri buruzko galdera.

1. Etxerik gabeko edo pasadizoko zenbat pertsona detektatu dira Nafarroan, eskualdeen arabera?

2. Gaur egungo egoera dela eta, hauteman al da halako pertsonentzako berriazko zerbitzuen eskaeraren igoerarik? Zenbaterainokoa? Non?

3. Departamentuaren ustez, entitate pribatuek kudeatutako zerbitzu publikoak beteta al daude?

4. Bazterketaren Aurkako Planaz gain, zeintzuk dira, Departamentuaren ustez, hartu beharko lira-

tekeen premiazko neurriak?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

Zenbat pertsonak indartu dute Nafarroako Enplegu Zerbitzua krisiaren ondorioz izan den eskaeraren hazkundeari aurre giteko?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa prestatu eta aurkezteko atzerapenari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa prestatu eta aurkezteko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak konpromisoa hartu zuen Ikastetxeei buruzko Erregelamendu berri bat idazteko eta mahai sektorialeko kideei igortzeko.

Hala ere, 6 hilabete iragan dira eta erregelamendu hori ez da aurkeztu oraindik.

Hori dela-eta, hona galdera:

Zer dela-eta atzeratu da Ikastetxeen Erregelamendu Organiko berria prestateta eta aurkezpena?

Noiz aurkeztuko da?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes